

## **LEGE OHARRA: MERKATU AZTERKETA ETA ABUSUA**

Dokumentu hau **NORBOLSA S.V., S.A.** sozietateak egin du fidagarritzat jotzen diren informazio-iturriak erabiliz. Alabaina, ez da bertan jasotzen den informazioaren eta iritzien zehaztasuna, zuzentasuna eta osotasuna ziurtatzen eta ez da haiei buruzko erantzukizunik hartzen. Dokumentu honetan jasotzen diren informazio nahiz iritziak jakinarazpen beharrik gabe aldatu ahal izango dira. Elkarrean, **NORBOLSA S.V.** edota beste edozein pertsonak ez dute euren gain hartzen dokumentu honen erabilerak edota haren edukiak erabiliz sorrarazi litezkeen kalte posibleen erantzukizunik. Txosten hau ez da eskaintza bat, ezta baloreen salerosketarako eskaera bat ere. Dokumentu hau informazio gisa ematen da eta ezin da kopiatu edota beste bati banatu. Ezin da, era berean, dokumentu osoa edo zati bat inolaz ere argitaratu.

**NORBOLSA S.V.** sozietatearen eskumeneko agintari gainbegiralea Balore Merkatuen Batzorde Nazionala da. Txosten honen analista/analistak **NORBOLSA S.V.** sozietatearen jokabide-kodearen menpean daude, eta **NORBOLSA SV**ren web orrialdean eskura daiteke ([https://www.norbolsa.es/avisos/codigo\\_conducta\\_eu.pdf](https://www.norbolsa.es/avisos/codigo_conducta_eu.pdf)).

Gure gomendioen eskala honakoa da: erostea, mantentzea eta saltzea, hurrengo 12 hilabeteetan esperotako errentagarritasunaren arabera. Erostea – merkatuarena baino handiagoa den errebalorizazioa izateko aukera, Mantentzea – merkatuaren antzeko bilakaera izatea espero duen balorea, eta Saltzea – merkatuarena baino bilakaera txarragoa espero duen balorea. Gainera arrisku kalifikazioa ere badago (altua, ertaina edo baxua), baloreak, besteak beste, merkatuan, betan, oinarrizkoetan eta abarretan duen hegazkortasunaren arabera ezartzen dena. Gomendio hauen maiztasuna aldatzen da gertaera garrantzitsuak gertatzen badira; izan ere, balorearen balorazioan, arriskuan, estrategian eta abarretan eragina izan baitezakete.

Konpainia hauen xede-prezioak balorazio metodo ezberdinak erabiliz balioetsi dira : cash-flow-en deskontua, burtsako ratioen konparazioa, zatiak gehituz, ....Informazio gehiago nahi izanez gero konpainia bakoitzaren txosten zehatzera jo daiteke.

2016ko abenduaren 21an, **NORBOLSA SVk** estalitako konpainia guztien artean Errosteko %50 gomendio, Neutral mantentzeko %42 eta Saltzeko %8 gomendio daude.

**NORBOLSA, SV, SA** sozietateak Kutxabankaren %80eko, Caja Ingenieros-ren %10eko, Iparkutxaren %5eko eta Bankoaren %5eko partaidetza du bere kapital sozialean. Kutxabankek %3,47eko partaidetza du Iberdrola, SA sozietatean (2015 abenduan). Hala ere, Kutxabank, %25,08eko partaidetza du Euskaltel, SA sozietatean, eta kontseilari bi du haren Administrazio Kontseiluan.

**NORBOLSA, SV, SA** sozietateak %0,74eko partaidetza zuzena du Bolsas y Mercados Españoles, SA sozietatean.

Dokumentu hau egin duen/duten analistak/analistek ziurtatzen dute dokumentu honetan adierazitako iritsi guztiak, bakoitzak dokumentuan agertzen diren baloreei buruz dituzten iritziak direla. Halaber, azterketa hauetan emandako gomendioek bere ordainsarrietan ez dutela eraginik izango ere ziurtatzen ditu.

**NORBOLSA, SVk** 1333/2005 Errege Dekretuan merkatu-abusuari eta gainerako legediari dagokionez xedatutakoa betetzen du.